


## NUEVA IMAGEN DEL UNIVERSO

**EL GRAN DISEÑO**
Stephen Hawking y Leonard Milodinow
Crítica, 2010
224 páginas. 21,90 euros

En este libro, Hawking pretende dar una nueva visión de la creación del universo, alejada de la tradicional y lejana a la que él mismo sostenía hace unos años. Junto al también científico Milodinow, Hawking enumera una nueva teoría sobre la creación del universo, y asegura que Dios no es el creador del mismo sino que tanto éste como otros muchos universos proceden naturalmente de las leyes físicas. Según el científico británico, así como existe una ley de la gravedad, nada impide que el universo se haya creado a sí mismo de manera absolutamente espontánea, desmontando así lo que se venía pensando hasta el día de hoy.



## FLECHAZO CON LA SOCIEDAD RUMANA

**CORNEJAS DE BUCAREST**
Miguel Sánchez-Ostiz
Pamiela, 2010
536 páginas. 28 euros

Sánchez-Ostiz nos acerca a la realidad de la sociedad rumana en esta novela que tiene bastante de crónica de la historia reciente de Rumanía y mucho de fantasía, sobre todo en lo que se refiere a la vida del narrador. Además de Bucarest, el hilo argumental del libro discurre gracias a la presencia del narrador-protagonista, un escritor que acude a dar un curso sobre picaresca española a la Universidad de Bucarest. Sánchez Ostiz viajó por primera vez a Bucarest en 2005 y, según cuenta, ya entonces la ciudad le chocó; cuando en 2008 realizó un tercer viaje, reconoció haber sentido un auténtico flechazo por Rumaría.

POESIA

# Bihar etzi atzo da

**HIRI GORRITIK**
Asier Serrano
Elkar, 2010
68 orrialde. 12 euro




Ainara MAIA

Ez dit, ez, inork zutaz galdetu, Asier, eta nire amets gorrienean ikusi zaitut bart. Nire bihotz gorria kolpatu didate, baina ez naiz makurtu, eta zuk zure hitzekin kolpeak laztandu dizkidazu bihotzeko hitz horiekin. Zure hitzez maitemindu naiz, Asier, zutaz! nire hiri gorri honetatik milesker bihotzak eginik.

Bihotzetik idatzi dituzu hitz inperfektuok zorion perfekturantz, eta hiri gorri honetatik, Brnotik, mila esker eta muxu, Asier! Hiri gorritik bihotzera iritsi baitzait zure maitasunaren desoreka. Hanka bat amildegitik harago nuenean, «maitea» edo «laztana» esan didazu eta kolpean atzera egin dut. Ez naiz amildu beherantz!

Beltxarga itsusiek kontatu didate niri ere, Svitava (er)rekaren ertzean nagoela, zure hitzez maitemindu naizela, eta badakit beharbada egonen dela pentsatzen duenik hau ez dela literatur kritika serio bat, baina hala da, bihotzetik erantzuten dizudanez gero. Hiri gorri inperfektu honetara gonbidaturik zaude, etorri bada hona!

Serio ari naiz. Konformatu naiz zure poema-liburua irakurtzetik amaitu dudanean. Zoriontsu naiz neure bihotzak taupaka maite duelako; nire bihotza bizi da oraino!

Egin dut proba, Asier. Ni ez ninduten egia esateagatik epaitu, ni egia esateagatik kondenatu ninduten bakardade latzera, eta bihotzean jarri dut nire indar osoa, nire odola. Lehertzeko zorian nago, maitasunagatik dena emateko prest!

Salbatu nauzu, Asier, eta hona etortzeko bidea hartzea erabakitzen baduzu, hobe trenez ez bazatoz, beldur baitiet nik ere halabeharrez desbideratzen diren karrilei.

Akordatzen naiz nire iraganaz zure hitzak irakurtzean, Asier, baina orain, nire bihotza zaindu beharra daukat zure gomendio poetikoa aintzat hartuz. Ameslari bat naiz, oraindik maitemindurik segitzeko ahala dudalako. Amets gorriak marraztu dituzu gauean eta nik egunsenti gorria ikusi dut. Milesker, Asier!

Ez nauzu abandonatu olerki batetik bestera, eta «maitea» esanez, indarra eman didazu bizitzaren ibaian gora arraunean segitzeko. Beharbada ezin dut lorik egin, ezta ihes egin ere, hiri gorriaren maitasunezko sabai zaharrean harrapaturik segitzen baitut, eta negarrez berotzen dut gauero burkoa; hala ere, bihotz deitutako hiri gorri hau ez da berotzen, baina eguerdiko ordu bietan itxarongo zaitut hirurak arte, Asier!

Bitartean, arnastu zaitut olerki hunkigarri hauetan, eta ez naiz ito. Emakume olerkari ameslari honengatik topa egin nahi izan duzu, puta izateko eskubidea dudalako eta ama izateko erantzukizunik ez dudalako; bejondeizula zuri, Asier! zure hatz magiko horietatik hitz magikoak ene bihotzeraino iritsi zaizkit, eta desio nuke hitz xume hauen bitartez zure hiri gorri horretara zorion puska bat iritsiko balitz odolaren bidez. Bosgarren urtaroaren lengoaiaz mintzo natzaizu neguaren atarian, maitasunaren urtaroan, badakidalako ulertuko didazula, Asier.

Hiri gorri honetan denetariko jendea dago, bai: epaileak, zerriak, alargunak, zubigileak, pailazoak eta hobiratzaileak ere bai, eta denok dugu elkarren beharra. Kukurruku egin orduko hemen izango nauzu ni ere, Asier, beranduegi ohartu banaiz gizakia ez dela hain onbera; esaiozu, arren, hiri gorri hartako lartzabaleko sabai goxo hartako ene lagun min maitaleari barkatzen diodala dena; esaiozu nahi ez nukeen gero eta oroitzapen gehiago agertzen zaidala; esaiozu hau bihar, gaur beranduegi baita.

## KALERATU BERRIAK




### FRESCO DE LA SOCIEDAD PORTUGUESA

**EL APOCALIPSIS DE LOS TRABAJADORES** | Valter Hugo Mae
Alpha Deay, 2010
208 páginas. 17 euros

Valter Hugo Mãe (Saurimo, Angola, 1971) narra la historia de Maria da Graça, una empleada del hogar en la cuarentena que vive en una ciudad de provincias en el norte de Portugal. Galardonado en 2007 con el Premio José Saramago, el estilo de Hugo Mãe se caracteriza por la ausencia de mayúsculas y la velocidad del texto.




### TOLSTOI DE CERCA

**SOBRE MI PADRE**
Tatiana Tolstoi
Nortesur, 2010
128 páginas. 13 euros

La hija del gran autor ruso revela asuntos de la vida de su padre y su familia y, con ello, desmiente algunos «cuadros falsos» que se han pintado. Un paseo por la vida del escritor a través de material de primera mano, como son los diarios paterno y materno, las cartas que se dirigían los esposos y las notas de su puño y letra.




### EL DEFINITIVO «DOCTOR ZHIVAGO»

**DOCTOR ZHIVAGO**
Boris Pasternak
Galaxia Gutenberg, 2010
760 páginas. 24 euros

Con motivo del cincuenta aniversario de la muerte de su autor, se publica por primera vez la traducción directa del ruso de este clásico a partir de la edición fijada por el hijo de Pasternak. La épica historia de Yuri y Lara cobra nuevos matices a la luz de una traducción fiel al espíritu de su autor, Premio Nobel de Literatura.




### CLAVES PARA ENTENDER EL AMOR

**EL AMOR Y SUS FORMAS**
Javier Sádaba
Península, 2010
200 páginas. 20 euros

El filósofo Javier Sádaba da sus claves para entender el sentimiento más universal, el más estudiado y el que más preocupa al ser humano. Desde el amor paterno-filial a los triángulos amorosos, desde el flechazo a la obsesión por otra persona, Sádaba reflexiona sobre las formas del amor en las sociedades contemporáneas.